

# BALOREZKO PROPOSAMENA


Atal honetan, proiektu honen bidez asetu nahi dugun beharra, jarri diogun konponbidea, eta gure lehiakideengandik aldentzen gaituzten ezaugarriei buruz hitz egingo dugu, aplikazioaren funtsezko funtzio batzuekin batera.

Gaur egun, aurreko urteekin alderatuta, orokorrean gauza guztiak garestitu egin dira, baina batez ere garraioaren arloan, adibidez: bigarren eskuko autoak, gasolina... Hori dela eta, jende askok autoari uko egiteko beharra izan dute lehen-mailako beharrak ordaintzeko. Horregatik, EAEn, garraio publikoa, esate baterako, Lurraldebus, Euskotren... geroz eta gehiago erabiltzen da egunero, bai lanera joateko, bai eskolara, unibertsitatera, edo medikura, baita familia ikustera ere joateko. Pertsona horientzat, garraio publikoa ezinbestekoa den zerbitzu bat da, hura izan gabe ezingo luketelako beraien eguneroko bizitza arrunta egin. Baina aldi berean, EAeko garraio publikoak arazo larri bat du: ondo eginda eta planifikatuta dagoen arren, askotan autobusen eta trenen ibilbideen eta ordutegiaren inguruko informazioa lortzea nahiko arlo neketsua da. Gehienak, web-orrietan begiratu orde, aukera simpleenaz baliatzen gara, Google Maps, eta hor dago arazoa. Maps-ek, askotan, ez du informazio fidagarria ematen: ordutegietan eta ibilbideetan azken urteetan egon diren aldaketei buruz ez du berri ematen, eta garraio bakoitzak dituen limitazioei buruz ez du informaziorik ematen (adibidez txartel edo bono berezi bat behar den, ea elbarrientzat adaptatua dagoen, etab.) eta horrek erabiltzaieei modu eraginkor batean garraiatzea eragozten die.



Honi konponbidea ematen dio gure aplikazioak, garraio publikoa erraztu eta sustatuz. Maps-en kontzeptu berbera erabiltzen du, baina lehen aipatutako arazoak konponduz. Aplikazioan zure helmuga eta hasierako kokapena adierazi behar dituzu. Ondoren, app-ak, helmugara iristeko ibilbide azkarrena erakutsiko dizu, kostua, denbora, elbarrientzat ongi egokituta dagoen eta zer autobus edo tren hartu behar dituzun ere bai. Hainbat ibilbide erakutsiko ditu, eta bezeroaren beharretarra egokien moldatzen dena aukeratu ahal izango da (merkeena, azkarrena, edo ordu zehatz batean iristen dena, adibidez). Hau lortzeko, aplikazioak autobus eta tren ezberdinen ibilbideei buruzko informazio eguneratua ematen du (ea berandu datozen, ea bidean obrak edo bestelako eragozpenak dauden, etab.), eta EAEn dauden garraio enpresa guztiek eskaintzen dituzten zerbitzu guztiak biltzen ditu (Lurralde bus, Euskotren...).

Hori gutxi balitz, garraio publikoaren zehaztasuna bermatzeko, haien barruan txertatuta duten satellite bidezko GPSa gure aplikazioan ikusgai edukiko dugu, beste herrialde batzuetan egin duten antzera.





Azkenik, gure ustez, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak ez dira nahikoa izango gure proiektua urteetan zehar mantentzeko, eta horregatik, beste diru-iturri batzuk edukitzea aukera egokiena izango dela deritzogu. Horregatik, Mugifast Prime ezarri dugu, aplikazioan bertan kreditu txartelaren bidez erosi daiteke edo App Store edo Play Store txartelekin. Gainera, 3 egunetako doako probak ere egongo dira bezeroek proba dezaten. Eta 4.99€-ren truke iragarkiak kentzeko eta bidaiak bonuak lortzeko aukera izango dute.